

...eta

# Kitto!

940 zkio.  
2015-IX-4



## Gerra Zibila Arraten gertuago

**matrikula**  
**ZABALIK**

**2015/16 EUSKARA IKASTAROAK**

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**

(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

**aek**

Sostoa 1, 1. solairua

Telefona: 943 201 379

[eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)



Arrate Gaina, 4 279 Postakutxa  
943 121 262 943 127 334

# KANTABRIA

## Jatetxea

*Aukera edozein ospakizunetarako*



ARRATEKO SANTUTEGIAREN  
ondoan aurkitzen gara

**Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak, urrezko ezkontzak,  
zilarrezko ezkontzak,  
karta, enpresa bazkariak...**

[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)



[kantabria@kantabriajatetxea.com](mailto:kantabria@kantabriajatetxea.com)

# IRAILEAN MATRIKULAZIOA ZABALIK

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

### Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

### Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

### Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

### Automatizazioa eta Robotika Industrialia


Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

### Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

### Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoz eta energia hornitzeaz arduratzen dira



Informazio gehiago: 943 71 21 91

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

# ASTEAN ESANAK

"Era guztietako gaizkileen %36k berriz egiten dute delitu kartzela utzi ostean. Sexu delituak egin dituztenetan, gutxiagok: %20k, tratamendua jaso ez duten kasuetan. Orduan, jokabidearen tratamenduan eginiko terapiak erabiltzen dira gehien. Eta emaitza onak dituzte: %20 hori %4ra jaisten dute"

(NAHIKARI SANCHEZ,  
KRIMINOLOGOA)

"Estatuko finantza sektoreak urtean hiru mila milioi eurotik gora jasotzen ditu bankuetako txartelei ezarritako komisio eta kuoten bidez. Kutxa automatikoen mantenurako, ordea, askoz kopuru txikiagoa erabiltzen dute: laurdena inguru, 840 milioi euro"

(RUBEN SANCHEZ,  
FACUA KONTSUMITZAILE ELKARTEKOA)

"Txiroa izan zaitezke, baina Alhambren hegieta jaitzen baldin bazara, kultura eta aberatsa zara jadanik. Ezin zara analfabetoa izan"

(ESTRELLA MORENTE,  
KANTARIA)

"Interneten aurrean, nerabeen jokaera menpekora baino konpulsiboa da. Gurasook agian gure seme-alabekin ikas genezake. Kontuan hartu behar duguna da zer eskatzen dugun eta nori eskatzen diogun. 15 urteko bati ez diozu galdetuko sare sozial bat nola erabiltzen den; aldiz, 12 urteko batekin errazagoa izango da horrelako asmoak betetzea eta, aldi berean, zertan dabilen jakitea"

(MAIALEN GARMENDIA,  
EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA)

**KONTRA.-** Aurka. "Zure kontra berba egin dabe". Ondoan. "Han euken Untzagako plazan euren trepetxuori kajo haundi baten kontra".

**KONTRA EGIN.-** Aurre egin. Gaztelerazko 'enfrentarse'. "Oin be, ziur naok, neri kontra egittiarren gora egingo ebala".

## eskutitzak

### JAURLARITZAK BERMATUTAKO GUTXIENEN PENTISIOA: 1.080 EUROKOA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2014an 65 urtetik gorako pertsonak 449.867 ziren (populazioaren %20,7), horietatik emakumezkoen kopurua 260.346 eta gizonezkoena 189.521ekoa zen. 2015eko uztailan Euskal Autonomia Erkidegoan Pentsio saria- ren batezbestekoa 1.099 eurokoa da; argi dago pertsona pentsiodunen gehiengo ez dela kopuru horretara iristen. Ondorioa: adin nagusiko pertsona asko eta askoren Pentsioak pobrezia egoeran bizitzera eramaten ditu; bereziki egoera larria orokorki emakumezkoek pairatzen dute.

Gizarte-segurantzako kaxa bakarraren kudeaketa zentralistak Euskal Pentsioei ez die ezer positiborik ematen; guk Gizarte-segurantza Euskalduna, hemendik bertatik kudeatzekoa, exijitzen dugu. Gainera, gauzak hurbiletik hobeto zaindu eta zuzentzen dira; eta garrantzitsuak direnean, gure Pentsioak kasu, zer esanik ez.

Egoera horren aurrean beharrezkoa da errebeldia, gutxieneko Pentsio Duina ez digute oparitutako. Mobilizatu beharra dugu: manifestazioak, elkarretara-

tzeak, bilerak... Gure eskakizunak betetzera Gobernuak derrigortu egin behar ditugu eta pertsona guztiak bizitza duina egiteko eskubidea badugula herriarrak kontzientziatu ere bai. Euskal Herriko eskubide sozialen gutunarekin bat, gure Pentsioak hemen erabaki nahi ditugu (hemen bizi bagara, hemen erabaki). Hori lortzeko hara hemen gure eskakizunak: Eusko Jaurlaritzari eta Parlamentuari Gizarte-segurantzaren transferentzia, gure eskumenean jarzea irmotasunez exijitzea Espainiako Gobernuari. Eskakizun hori Autonomiako Estatutuan 1979an onartuta dago, dagoeneko badira 36 urte!!!

Euskadiko Gizarte-segurantzako eraketa hezurmamitzen ez den bitartean, Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontuen arabera Pentsioak osa ditzala, hilero gutxieneko Pentsioa 1.080 eurokoa izatea bermatuz: Euskadin gutxieneko Pentsioa 1.080 euro.

Pentsio publikoak eta Euskal Gizarte-segurantza: adineko pertsona bakar bat ere ez pobrezian. Pentsio errukarriak sortarazten dituen hitzarmenari Ez!!

**QUINTASUNA (GIPUZKOAKO PENTSIODUNEN ELKARTEA)**

### MUNDUKO GIZONIK ZORIONTSUENA EGIN NAUZUE

Umetako amets guztiak beteta noa, nire Eibar punturik gorenean utzita, talde handi honek merezi duen lekuan. Bizitzako erabakirik zailenetakoa hartu behar izan dut, etxetik joatea ez delako sekula erraza izan, baina uste dut hauxe dela etapa berri bati ekiteko unerik onena. Hiru urte zoragari bizi izan ditugu elkarrekin, eta gure taldearen arakastarik handienekin gozatu dugu. Sekula ez ditut ahaztuko San Mamesen jokaturako Kopa kanporaketa, Hospitaleko igoera, ezta 2014ko maiatzaren 25eko gau hurara ere, zerua ikutuz Lehenengo Mailako talde bihurtu

ginen gau hura. Zein une zoragarriak! Eibar osoari eskertu nahi diot beti erakutsi izan dizkidan maitasuna eta errespetua. Mila esker nire taldekideei eta klubeko langile guztiei; eskerrik asko zaletuei eta une on zein txarretan aldamentean izan zareten guztioi; esker mila nire peñari, Errasti peñari, nire familiari, eta orokorrean eibarzale guztiei, munduko gizonik zoriontsuena egin nauzuelako. Betirako nire taldea izango denari onena opa diot. Ez diot agurrik esan nahi, geroarte baizik. Besarkada bat!

**JON ERRASTI**



Euskara Elkarteak

**ARGITARRAZTARILEA:** ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Jon Etxezarraga

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**



## Eibar, gerratik ihes doiazenak hartzeko prest

Egunotan Siria, Irak, Afganistan eta Saharaz hegoaldeko Afrika-ko gatasketatik ihes egin nahi-xan dabizenen irudixak islatzen daberen egoera larrixarekin arduratuta, udalak, talde politiko guztien babesarekin, Europar bizitza berri bat hasi nahi daberen iheslarixak hartzeko prest daguala emon eban aditzera eguaztenian eta, horrekin batera UNHCRren bidez 2.000 euroko larrialdiko lagun-

tza bideratzia erabagi dau. Hartu dituduen alkartasun neurrixen artian, baiña, "garrantzitsuena Eibarko hiria iheslarixak hartzeko eskaintzia" dala diñue. Alkatiak azaldu dabenez, "Eibarko hirixaren izenian iheslarixetako batzuk hartzeko geure burua eskindu dogu, horretarako premiñia egonez gero". Eibar izan da Euskal Herrixan horrelako eskintza egitten lehelengua.



Gure herrixa izan da Euskal Herrixan lehelengua erabagixa hartzen.



## Roberto Larrañaga eibartarra Confedebaskeko presidente

Uztailaren 20xan egindako Kontseillu Orokorrian, Roberto Larrañaga eibartarra Confedebaskeko presidente izendatu eban, Bizkaiko patronalak abstenziñua emon arren Adegipuzkoako patronalak aldeko botua emon eban eta. Roberto Larrañaga Oyanguren (Eibar, 1958) sustapenari eta eraikuntzari lotutako enpresarixua da. 1981az geroztik

Gasteizen bizi da eta 1984an sortu zan Zikotz enpresia zuzentzen dau. Horrez gain, Arabako Eraikuntzako Enpresarixuen Batasuneko presidentia izan zan (2002ko ekaiñetik 2010eko urrira arte) eta SEAko Zuzendaritzako kidia eta SEAko zein Confedebaskeko Lan Segurutasun eta Osasuneko Batzordeko presidentia be bada.

## Itsas-urteera barrixak

Uztailaren amaiera aldera inauguratu eban Debako pantalan barrixa, bestiak beste Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren, Pedro Bengoetxea Debako alkatiaren eta Juan Angel Balbas Debegeasako zuzendarixaren parte-hartzia euki eban ekitaldixan. Pantalanarekin batera, Euskal Kostaldeko Geoparkearen eskintza turistikua osatzera datozen bi itsas-urteera barrixak presentau zittuen. Barxuan Deba-Zumaia arteko ibilbidia betetzen daberen bisita gidatu barrixak uztailleko azken egunetan abiatu ziran: ordubeteko zeharkaldixan parte hartzen daberen bidaiarixak itsas-barrutik Geoparkeko kostaldeko (Mutriku-Deba-Zumaia) flyscharen edertasunaz gozatzeko aukeria dake, gida batek azalpenak emoten detsazen bittartian.



## MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

1. URTEURRENA: 2014-VIII-4

**EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;  
IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.**

**Zure kuadrila**

## Eva Juez legebiltzarkide barrixa

Maribel Vaquero jeltzalia ordezkatzan, uztailaz geroztik Euzko Abertzaleak Legebiltzar taldeko legebiltzarkide da Eva Juez Garmendia eibartarra. Uztailleko azken egunetan jabetu zen karguaz, Euzko Legebiltzarrean. Legebiltzarkide barrixa aurretik be politikan jardundakua da: uda honetan hartu daben karguaren aurretik, 2005az geroztik EAJ-PNV alderdixarekin ziñegotziza izan da Eibarko udalean eta, horrekin batera, 2009. urtetik aurrera udal taldeko bozeramaillia be izan da.



## Arcadio Benitez Mankomunidadeko presidente, eta Albistegi diruzain



Arcadio Benitez organikuarendako txartel barrixa aurkeztu zebanian.

Uztaillian egindako botazifuan Arcadio Benitez sozialistaren zerrendiak jaso zittuan bozka gehixen (17tik 9) eta, beraz, aurretik betetzen eban kargua berretsi eta atzera be Debarrena Mankomunidadeko presidentia izango da datozen lau urtietan (2019. urtera arte). Horrekin batera, aurtengo udal hauteskundietan Eibarko Sozialistekin bat egin daben Alberto Albistegi diruzain kargurako aukeratu eben.

## autuan

### ENPRESAK: DIRU-LAHGUNTZAK

Eibarren finkatuta dagoaz enpresak lehiakorraguak izateko azterlanak egitteko diru-laguntzetarako deia egin dabe. Eskaeriak Pegoran aurkezteko epia irailaren 30ean itxiko dabe. Enpresiak 50 bihargin edo gitxiago euki biharko dittu eta diruz lagundu lekiazen azterlanak aurtengo urtarrillaren 1etik aurrera egindakua eta azaruaren 27xa baiño lehen amaitutakua izango dira.



### JSM BEKIA

XII. Juan San Martin bekarako deialdixa aurkeztu eben atzo Portalean. Deialdi honetan lantzeko aukeratu daben jakintza esparrua Etnologia da. Bekia jasotzeko eskaeriak urriaren 9ra arte jasoko dittu Pegoran.



Lagunek triste alkarri  
Nun sartu da ordia  
Gure albotik juan jaku  
Zure irrifarria  
Milesker eskaintziarren  
Zu ezagutzeko ohoria  
Adiorik ez, Arrate  
Maite zaitugu

ZURE EIBARKO KUADRILA

## ARRATE BENGOA GOROSABEL

(2015-VIII-20an hil zen, 56 urterekin)



info@gerritek.net  
www.gerritek.net

## SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892



## asteko 12 datua

andra langabetu gehixago eguzen abuztuan Debarrenian julixuan baiño; urtarilletik hona hillero bajau da langabetu kopurua, %8'08ko portzentajera aillegau arte; jaitsieria askoz haundixagua izan da gizonen artian (%11'95) andrazkuen artian (%4'8) baiño.

## Aldaketak EuskoTreneko zerbitzuetan

Iraillaren 1ian hainbat aldaketa sartu ziran indarrarian EuskoTreneko zerbitzuetako batzuetan: bestiak beste, Debabarrena eta Urola Kostako linietan neguko ordutegixa berrerrazari dabe; Eibarren, Ego Gaiñeko autobus geltokiko geralekua desagertu egin da Ermua-Donostia linea betetzen daben zerbitzu guztiendako; eta astelehenetik barixakura Eibartik Arraterako zerbitzua eskintziari laga detse.

Horrekin batera, Debabarrena eta Urola Kostako linietan neguko ordutegixa berrezarri dabe, Eibarko 07.20ko eta Donostiako 14.30eko zerbitzu gehigarriak barne. Egin dittuen aldaketen inguruko informaziño



*Urtero lez, opor aurretik egin moduan, oporren ostian be hainbat ordutegi aldaketa egin dittue autobus zerbitzuetan.*

gehixago nahi dabenak 902 543 210 telefono zenbakira deittuta edo euskotren.eus helbidian begiratuta jasoko dittu bihar dittuan argibide guztiak.



## Euskeraz erosteko leluaren billa

Jendia euskeraz erostera animatzeko asmuarekin uztaillian ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik lehen aldiz egin zan lelolehiaketiak arrakasta haundixa euki eban, jendiak idatzittako 800 esaldi edo goiburu batu zittuen eta. Parte hartu ebenen artian Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko erosketa-txartela oparitzeko zozketia egin zan uztaillian bertan eta irabazlia argazkixan ikusten dozuen Hiart Compañon izan zan. Ointxe abiatzen dan bigarren fase batian, jasotako lelo guztien artian gusto-

kuena aukeratu biharko dabe. Dendariak eta Ostalariak Berbetan Batzordiak osatuko daben epaimahaixak eurendako polittinak diran 10 leluak aukeratu eta urrixan, jendiar gehixen gustatzen jakuenaren aldeko botua emoteko aukeria emongo jako Facebook-en. Irabazliak 100 euroko erosketa-txartela jasoko dau eta, gaiñera, berak asmatutako lelu danon ahotan entzuteko aukeria be eukiko dau, Gabonetan Euskeraz Primeran! kanpaiñiarekin bat egitten daben dendetan erabiltzeko asmua dake eta.

**eitek**  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena**

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

Juan Gisasola, 5 -EIBAR-  
943 20 39 59  
[www.linkidiomas.com](http://www.linkidiomas.com)

**LINK IDIOMAS**

**- INGELESA  
- FRANTSESA  
- ALEMANA**

**UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT  
TALDE MUGATUAK  
BAKOITZARI EGOKITUA  
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA  
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA  
MAILA GUZTIAK**

**Cambridge ESOL Exam Preparation Centre**

# AI KI DO

# 合氣道

BATASUNA ENERGIA BIDEA

## Egiazko garaipena

## Norbereganako GARAIPENA

13 urtetik  
gorakoentzat eta  
klase bereziak  
jubilatuz eta  
pentsiodunentzat



ESKU HUTSA,  
BOKKENA  
(egurrezko sablea)  
eta JO (makila)  
lantzen ditugu

## Probatu DOAN

## ALAIKI AIKIDO ESKOLA



合氣道  
1918



Aikidooa arte martzial japoniarra da, **MORIHEI UESHIBA O'Sensei edo Maisu Handia**ren bitartez sortua. Arte martzial orok bezala, norbere buruaren jabe izatea du helburu, geure buruarekiko garaipenaz (pasioak, pentsakera ezkorrak...) geure burua harmonizatuz. **Bakearen eta harmoniaren arte martziala bezala ere ezagutzen da.**

**AIKIDO 合氣道:** nork bere burua armarik gabe defendatzen erakusten duen arte martziala. Japoniar arte martzialen sintesia da. Japoniarren izenak erakusten duen bezala (ai = bat egitea; ki = kemia, energia, indarra; do = bidea), gorputzaren eta pentsamenduaren indarrak ekintza berean harmoniaz bat egitea du helburu.

Beste arte martzialek ez bezala, teknikaren helburua ez da arerioa menderatzea, haren bortxazko eraso desegin, eraso desbideratu eta haren borondatea irabaztea baizik, guzti hori indarkeria erabili gabe.

**Arte martzialek enfokatzeko hiru era daude:**

**1ª LEHIAKETA:** Batek edo gutxi batzuk irabazten dute, eta beste denek "galdu". Aikidon lehiaketarik ez dago; elkarlanaren ondorioz denok irabazten dugu.

**2ª DEFENTSA PERTSONALA:** Aspektu hori kontuan hartzen dugu, arte martzial bezala, baina "arte" moduari garrantzi handiagoa ematen diogu "martzialari" baino.

**3ª GARAPEN PERTSONALA:** Hori da Aikidoaren helburua. Teknika bikoteka landuz helburu horretara bideratzen dugu gure zeregina, elkarren arteko lanaren ondorioz. Hori dena gero kanpora islatzen da: familian, eskolan, lagunartean, gizartean... eta, horrela, poliki-poliki, denok irabazten dugu. "Egiazko garaipena, norbereganako garaipena".

"Aiki ez da etsaiaren aurka borrokatzeko edo hura garaitzeko teknika bat, **mundua adiskidetzeko eta izakiei familia bat osatzen laguntzeko bidea baizik**" (Ueshiba, Morihei).



**Elgoibarren**  
Pedro Muguruza, 9  
(Lanbroa ondoan)

**Irailaren 11n  
ostirala  
18.00etan  
BILERA  
INFORMATIBOA**



**Facebook - Aikidojo Elgoibar  
Tel. 636 716 487 (Iñigo)**



# Aterpetxea zabalik, Gerra Zibilari buruzko eskaintza biribila Arraten

**E**kainaren 1az geroztik urte-etan itxita egon den Arrateko aterpetxe edo koloniako atea berriz zabalik dade, Ateri aterpetxe sarearen barruan dagoen Suspertu enpresak instalazioak kudeatzeko ardura hartu du eta. Aurrerantzean bere ardurapean egongo den Gerra Zibila Eibarren Interpretazio Zentroa azpiegitura soziokultural moduan prestatu dute, Arrate eta inguruak duen balio turistikoa nabarmentzeko asmoz. Horretarako, batetik taldeak hartzeko bereziki atontu duten aterpetxea dago eta, bestetik, Gerra Zibileko Eibarko Fronteiri buruzko Interpretazio Zentroa. Bigarren hau aterpetxea baino lehenago hasi zen martxan, otsailean, eta jendeak orain arte izandako erantzunarekin pozik daude. Interpretazio zentrua inauguratu eta jarraian antolatu zituzten ibilbide gidatuek hasieratik arrakasta handia izan zuten eta, hasierako aurreikuspenak gainduta, parte hartu nahi zuten guztiei erantzun ahal izateko, nahitaez bisita kopurua gehitu behar izan zuten; eta, hala ere, asteburuoro zentrua eta Akondia inguruko trintxeren ibilbidea egiteko taldeak bata bestearen atzetik osatzen jarraitu zuten luzaroan. Ohiko ordu-tegian bakarrik domeka goizez,

11.30etik 13.30-era zabalitzen duten Interpretazio Zentruak erakarrirako bisitariak ez dira gutxi izan: bakarrik azken hilabete honetan 162 lagun joan zaizkie.

Hala ere, aterpetxea zabaltzarekin batera emaitzak asko hobetuko direla uste dute, Gerra Zibilaren inguruan aurretik zegoen eskaintza askoz osotuagoa izango delako. Izan ere, aterpetxea ekainean zabaldu bazen



*Interpretazio Zentrua domeka goizez bakarrik dago zabalik, baina eskatuz gero hitzordua lotu eta orduan zabaltzeko aukera badago.*

**INFORMAZIOA  
ETA  
ERRETSEBAK:  
[www.ateri.net](http://www.ateri.net)  
[albergues@ateri.net](mailto:albergues@ateri.net)  
944029099**



*"Aterpetxea taldeek erabiltzeko prestatu da bereziki, ikastetxe-ek ikasle-taldeekin erabiltzeko moduko eskaintza eta jarduerekin. Horregatik, benetako zabal-kundea orain hasiko da, ikastetxeekin harremanetan ipini eta eskaintzaren berri ematen hasten garenean".*

ere, abuztua tartean, bertako eskaintzaren eta zerbitzuen berri emateko sasoirik onena ez da eta, horregatik, ikasturte berriarekin batera ekingo diote horri, Arraten beharrean dagoen Igor Marcosek aurreratu digunez:

Horren harira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin lantzeko programa berezia, "Eibar Berrikuntza" izenburukoa sortu dute eta, horren barruan eskaintzen dituzten jarduerak, hezitzaileak izatera bideratuta egoteaz gain, adin tarte horretan dauden gazteentzat ahalik eta erakargarrien izaten ahalegindu dira: "Programarekin, besteak beste, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen ekintzailetzari lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak sustatzeko plana garatzea, ikasleengan ekintzaile jarrera bultzatzea eta bestelako estrategiak lantzea bilatzen dugu".

Marcosek azaldu digunez, "kudeatzen ditugun beste zentruetako esperientziari jarraituta, tokian tokiko baliabideak aprobetxatzen ahalegintzen gara beti eta Eibarren horretarako aukera zabala dago: Arrate Amaren Santutegia, San Andres eliza, Markeskua jauregia eta, jakina, Portalea eraikinak hartzen duen Armagintzaren Museoa".



*Bereziki ikasleekin lantzeko programa osatu dute.*



*55 lagun hartzeko tokia dago aterpetxean*



JON ETXEZARRAGA (Intxorta 1937):

## “Gerra Zibileko aurkikuntzek balore arkeologikoa dute”

- Noiztik zabilta 36ko Gerrako aztarna bila? Nondik zaletasun hori?

Horren inguruko kezka izan dut betidanik. Umea nintzela, Karitatezko mojekin izaten nintzen Arrateko kolonian eta, han aurrean, hainbat bala aurkitu nituen. Familian ere bagenuen Gerra Zibilean hildako osaba bat, Gernikan lurperatua. 15-16 urterekin hasi nintzen serioago, lubakiak-eta aztertzen, mendian ibiltzea gogoko izan dudalako beti. Soldadutzatik bueltan interes hori areagotu egin zen nire kasuan. Geroago Intxorta 1937 kultur elkartearen sartu nintzen, materialak-eta berreskuratzeko, museo bat osatzeari begira, eta horretan dihardugu Eskoriatzatik Eibarrerainoko tartean.

- Zer onura ekartzen dizu lan guzti horrek?

Ezagutza, batez ere. Horri esker, Aranzadiren prospekzioetan parte hartzen dugu, gero gorputzak lurpetik ateratzeko. 1936koaren inguruko batailak birsortzeko taldea ere osatu dugu. Intxorta 1937an ohikoak egin ditugu gidatutako txangoak, kartara egokitutakoak: familientzat, taldeentzat...

- Gerrari begira zertan dira aberatsak Arrate inguruko lurak?

Batez ere, lubaki eta gordelekuetan. Baina lur gehienak lohiz beteta daude, euren jabetza pribatua izanda horko jabe askok pinuak landatzeko aprobetxatzen dutelako. Askotan babesleku izandakoen aztarnekin konformatu behar dugu. Badira zonalde batzuk, lortodetik San Salbadorrera doana esaterako, horko lubakiak oso erraz identifikatu daitezkeenak; babeslekuak-eta ezkutuago daude. Aginagan behaketarako bi bunker daude; hirugarrena desagertuta dago. San Romango errepublikarren posizioa gero artzainen bordatzat erabili dute.

- Zer egin beharko genuke gutako bakoitzak gerrako zeozer aurkituz gero?

Ertzaintzari edo, bestela, herriko agintariei deitzea izango litzateke zuzenena. Aurkikuntza horrek duen balio arkeologikoa askotan kontuan hartzen ez bada ere. Azken aurkikuntzetako bat Usartza eta Nebera baserrien artean egin zuten, mortero jaurtigai bat.

- Zer iritzi duzu Arrateko Zentroaren inguruan? Bertan parte hartu duzu?

Museoa osatzerakoan ez dut parte hartu; pieza pare bat laga dizkiet. Interesgarria da, baina



Jon Etxezarraga eibartarra gazte hasi zen Gerra Zibileko memoria historikoa osatzeko lanean. Orain dela sei urte ukondora arteko ezker besoa ere galdu zuen Arraten, indargabetutako bonba bat museorako garbitzen ari zela. Baina zaletasunari heltzen dio eta aurreko domekan ere gidari lanean jardun zuen.

garrantzitsuena hor ez geratzea da: horrek jarraipena behar du izan. Ondo egongo litzateke, Larrabetzun eta Elgetan egin duten moduan, inguruan ia ezkatatuta dauden aztarnetan lan-eremua sortzea.

- Arazo askorekin egiten duzue topo zuen aurkikuntza-lanean?

Gerraren inguruko kezka hor dagoen arren, askok “hau saltsa!” esaten diote euren buruari gorputz baten bila hasi behar zarela ikusten bazaituzte. Beste askok euren etxeetako nagusiek esandakoa ez dute sinisten: “Hau burutik dago” pentsatzen dute. Badira *frikitzat* hartzen gaituztenak ere.

- Zuk aurkitutakoaren artean, zer daukazu benetan berezitzat?

Zorotzan lagun batekin aurkitutako milizianoa, 233 kotan. Haren identifikazio-txapa aurkitu nuen aurretik eta ordutik dihardut Aranzadirekin lanean. Metal-detektagailu batekin egiten dut lan eta aurkikuntza gehienak neguan egiten dira, lurra orduan mugitzen da gehiago eta.

- Gerra Zibilaz nahikoa ezagutzen dugula esango zenuke?

Ehuneko laurdenera iristen bagara conforme! Eskolan ere, “altxatze loriatsu” haren gaineko orrialde bakarra ikasiko genuen, ez gehiago! Ondoren, testigantza batzuk, gerra-eguneroko bat edo beste... gauza gutxi datu-base on baterako. Guk jaso duguna ikusi nahi duenak Intxorta 1937 elkarte web-era jo dezake.



# plancha LARRUGA

ORIGINALA eta Eibarren



PLANTXA-LAN  
ZERBITZU AZKARRA



628 092 147  
943 207 829  
608 055 302

info@planchalarruga.com

Sostoatarren, 2

inoiz IKUSI GABEKOA!!!

ETXEAN JASOTZEA  
ETA ENTREGATZEA  
iIDOAN!!



# Estilo anitzak bezperako parrandarako

Uteroko martxan, Arrate bezperako gaua zelaian, txosnarik txosna parrandan emango dutenentzat estilo anitzak elkartuko dituen kontzertu sorta antolatu dute: Egurra ta Kitto, Los Chikos Del Maiz eta Grises, hiru taldeek jardungo dute aurtengo jaietan bata bestearen atzetik, 22.30ak aldera hasita.

Azpeitiko Egurra ta Kitto taldekoek hilabete batzuk eman dituzte eszenatokietatik kanpo eta, horregatik, Arrateko oholtzara sekula baino gogotsuago igoko direla aurreratu dute. Baina zuzeneko emanaldietatik aldenduta egon badira ere, estudio barruan gogotik ibili dira beharrenean eta emaitza taldearen diskorik berriena, "Zuentzat" izenekoa izan da. Axular Arizmendi teknikariaren gidaritzapean, Ame Estudioetan grabatu dute eta, ska doinuak alde batera laga barik, lan berri honetan punk-rock doinuetan sakondu dute. Abestietako hitzei dago-kienez orain arteko ildoari jarraitu diote, kantuen aldarrikapen eta salaketa zorrotzekin osatuta. Diskoa Mauka disketeak kaleratu du eta sarean doan eskuratu daiteke ([www.maukamusic.com](http://www.maukamusic.com)).

Grises, berriz, Zestoan sortutako taldea da. "El Hombre Boligrafo" (Origami Records, 2011) diskoarekin egin zuen debuta eta lehen lan horretan inspirazio iturriak Foals, Glasvegas eta Editors taldeen doinuak izan ziren. "No se alarme señora, soy soviético" izan zen zestoaren estudioko bigarren lana eta horretan ardatza svnth-pop musika izan zen. Eta laister kalean izango den hirugarren proiektuan soinu hori indartu dute. Gaztain, taldeko abeslariaren estudioan grabatu eta ekoiztu dute hamar kanturekin osatutako "Animal" diskoa eta Sony Music-en eskutik kaleratuko da.

Eta Los Chikos del Maiz 2004an, Valentzian musika proiektu modura sortu zen eta gaur egungo hip-hopean erreferentea da. Errima eta erritmo politikoak lantzen dituzte abestietan eta hitzek zalaparta ugari eragin dute. Lanik berriena "La estanquera de Saigón" izenburua dauka eta diskoa liburu formatuan kaleratu dute.



Los Chikos del Maiz



Egurra ta Kitto



Grises



**S1 MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egiguretarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**Isasi, 31** Egunero 06.00-22.00  
**943 207 737**

Etorri!  
Zure etxian  
egongo zara!!

Astelehenetik  
ostegunera  
**PINTXO-POTEA!**

**KAFETEGIA OKINDEGIA**

**SUTLONDO**



# Lizaso, Egaña, Maia eta Agirre kantari Kantabrian

Aurten 23. edizioa betetzen du 1993an sortutako tradizioak. Orduko hartakoan, Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera, Peñagarikano izan zen: jakina, urtero ia kale egin ez duten Lizaso eta Egañarekin batera. Aurten, bestalde, aipatutako biek Jon Maia zumaia-rra eta Unai Agirre hernaniarra izango dira. Biak ere lehen aldiz datoz Arratera eta, horrela, aurretik izandako Jokin Sorozabal, Jose Luis Gorrotxategi, Xabier Euzkitze, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia bertsolariak, Narbaizarekin batera, osatutako taldean sartuko dira. Bitan izan dira Kantabrian Xabier Zerberio, Imanol Lazkano, Jesus Mari Irazu, Joxe Agirre "Oranda" eta Igor Elortza. Lautan izan dugu Sustrai Kolinarene bertsoak dastatzeko aukera, bost aldiz izan dira Amets Arzallus gaur egungo Euskal Herriko txapelduna (azkena iaz) eta Peñagarikano, eta zazpi bider izan da gure artean Maialen Lujanbio txapeldun-ohia.

Parte hartzen ez duela urteak badira ere, Gregorio Larrañaga "Mañukorta" 10 urtetan jarraian izan zen Kantabrian eta haren marka atzean laga dute Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak, biak ere azken urteotan kalerik egin gabe Arrateko hitzordu horretan bisitatzen gaituztenak: Lizasok aurten 20. urtea izango du eta Egañak 19.a.

## Gai-jartzaile berria

Asier Ibaibarriagak sei urtetan bete du gai-jartzaile lana, hainbat urtetan Rafael Zubizarretak egindako bideari jarraituz. Oraingoan, baina, Asierrek Jon Mikel Muji-

**AZKEN SARRERAK SALGAI daude Sagar-Bitza, Kultu eta Kantabrian**



kari pasatuko dio lekukoa astelehen gauean izango den bertso-saioa gidatzeko.

Kantabrian debutatuko dituztenei begira, biak ere urtean saio mordoa egiten dituztenen artean daude: Maia ezagunagoa akaso hainbat urtean Euskal Herriko final handietan izan delako, baina Unai Agirrek jauzi handia eman du azken urteotan eta, adituen esanetan, "kantukerari dagokionez bertsolari sentibera bada ere, umore zorrotza eskaintzen du aldi berean".

## Sarrerak salgai oraindik

Urtero lez, sarrera gehienak salduta badaude ere, bertso-zaleak zorteko dira aurren antolatzaileek diotenez oraindik aukera dagoelako azken sarrerak eskuratzeko. Aipatutako sarrerok Sagar-Bitza eta Kultu tabernetan eta Kantabria jatetxean bertan daude salgai, 32 euroko prezioan. Bertso-afaria, jakina, urterokoari jarraituta Arrate bezperan egingo da ohiko orduan, hau da, 21.00etan hasita. Aukera polita, beraz, afari goxoaz eta bertso-saio bereziaz gozatzeko, "beti ere ezusteko bat edo beste ere izaten baita" antolatzaileek diotenez. On egin eta indarrak hartu hurrengo egunerako, barre egitea baino gauza hobearik ez dago-eta.



Asko gaztetu da azken aldian Arrateko bertso-afariaren zalegoa. LEIRE ITURBE



Baimendutako  
harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta 20  
Tlfno: **943 20 16 69**





# Arrajolan ereindako garixa batu dabe aurten be

**B**igarren urtez jarraixan, Eibarko nekazal lurretan ereindako gari uzta batu dabe udan. Sosola basarrikuak iaz animau ziran euren lur-sail zati batian garixa ereitten eta, proba moduan egindakuakin lortu eben emaitza ona izan zala ikusitta, aurten atzera be errepikatu dabe.

Sosolatarrek aspaldiko ohituretara bueltatzeko gogoa "betidanik" izan dabela diñue eta, azkenian, iaz kanpotik ekarrittako gari pixka batekin probatzia erabagi eben. Arrajolan 2.000 bat metroko lur-saillian garixa erein eta gero, uzta batzeko sasoia ailegau zanian 120 kilo jaso zittuen. Batutako kiluak asko ez izan arren, kalidadia nahiko ona izan zan eta, emaitzarekin pozik geratu ziranez, oso argi zeken hurrengo urtian errepikatuko ebela. Gaiñera, Sosolakuen helburu nagusi- xa etxeko gari pixka bat lortzia, besterik ez zan eta, urtietako ametsa beteta ikustiak benetan poztu zittuan. Izan be, eurak animau arte 50 bat urte izango dira Eibarren garixa batzen ez zala eta, desagertuta eguan ohi- turia berreskuratzea lortu eta gero, jendiari

horren barri emon eta erakusteko aukera izatiak poztu zittuan gehixen.

Edozelan be, lehen uzta hori jaso aurretik biharrian gogotik jardun eben: zaharri- reri galdetu, lurra analizau, lehenagoko teknikak eta barrixak aztertu... Eta garixa erein eta hazi ostian be gogotik segidu eben biharrian. Aza Ta Porru alkartekuak lagunduta, auzolanian batu eben garixa uztaillaren erdialde partian eta osterako eginbiharrekuak (batu, jo eta garbittu) eskuz egin zittuen, gaiñera, antziña erabiltzen ziran lanabesak erabillitta. Hórre- txek lortzeko beste basarri batzuetara jo eben eta makiñetako asko komunitariuak izan ziran.

Iaz Arrajolan garixa erein eta gero batu zittuen ale gitxi batzuk erabillitta, etxian ogixa egin eta Arrate egunian salgai ipiñi eben. Eta jendiak pozarren hartu eban Eibarko garixa- rekin egindako ogixa erosteko aukeria, Sosola egindako 50 bat ogixetatik lehelengo sal- du zittuenak Eibarko garixarekin egindakuak izan ziran eta. Ogixa saltzeko mahaixaren al- damenian, uzta batzerakuan egindako erre-



*Gaztienak sekula ikusi bariko lanabesak bertatik bertara ikusteko aukeria euki eben.*

tratuak ipiñi eta egindako biharra zelakua izan zan ikusteko aukeria euki eban jendiak eta askok interes haundixarekin irakorri zittuen edozeiñek ulertzeko moduan idatzi zittuen azalpenak. Eta, jakiña, prozesua labur- biltzen zittuen erretratuak ikusmin haundixa piztu zetsen bateri baiño gehixagori: zaha- rrenen kasuan, ixa ahaztuta zittuen irudixak denporan atzera egiñ eta oin dala urte mor- dua ezagutu ebena gogorarazi zetsen. Eta gaztienak sekula ikusi bariko lanabes eta bestelakuak bertatik bertara zelan erabiltzen zittuen aukeria euki eben.

Iaz lortu eben emaitzarekin animauta, Sosola basarrikuak aurtengo udan bigarre- nez jaso dabe Eibarren ereindako garixa. Garixa hamen hazittakua izanda be, kanpo- tik ekarrittakua dala azaldu dabe: Bretaña- ko okin laborari batzuen eskutik jasotako bariedade nahasketia. Gurian ez eze, Erre- zilen be beste bi basarrietan uzta jaso da- be eta, aurreko urtiarekin alderatuz gero, Sosola basarrikuak aurtengo uzta batzeko orduan izan daben barritasun nagusiña ga- rixa jasotzeko makiñia izan da. Bestela, iaz egindakuaren bidetik auzolanian jardun dabe biharrian eta, euren ahalegiñari esker, aurtengo Arrate egunian atzera be egongo da gure herriko garixarekin egindako ogixa erosi eta jateko aukeria.



**Itzadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**ITZULPEN**  
ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelaratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com



# Opariak eta ilusioa banatzen hamabi urtez

Konturatu barik, beste urtebete pasa da eta Arratiak ate joka ditugu. Eibartarrantzat benetan garrantzitsuak dira Arratiak, berriz ere elkartzeko eta ondo pasatzeko unea da-eta. Guretzat irailaren 9ra arte ez da errutina hasten, baina ordura arte Arraten gozatzeko aukera badugu.

Urtero bezala eliza parean egingo dugu topo, urtero bezala Kittonbolia opariz beteta topatuko duzue, urtero bezala txartelak euro baten salduko ditugu, urtero bezala zuen laguntasuna eskertuko dugu, urtero bezala lortutako dirua Eibarraren euskararen alde lan egiteko erabiliko dugu. Urteko programa aurrera eramateko ezinbestekoa dugu, ezingo genuke, bestela, Berbetan, Txikitto!, Trans-



SILBIA HERNANDEZ

misioari buruzko mintegia, Bertso-paper lehiaketa, Ipurterre ipuin lehiaketa, ...eta kitto! aldizkaria, hitzaldi soziolinguistikoak, etakitto.eus ataria, ikerketak... eta beste hainbat proiektu garatu.

Maiatzetik aurrera ondorengo orrietan topatuko dituzuen denda, enpresa eta erakudeekin ari gara lanean. Euren parte-hartzeari esker aurten

ere Kittonbola opariz beteta egongo da: gazta, afari, txuleta, erosketa-txartel, ardo botila, telebista, GPS, argazki kamera, kamiseta, motxila, erloju, urdaiazpiko, lurrin, eskola-material, Coliseorako sarrera... eta beste milaka opari zuen zain.

Martitzenean 10:00etatik aurrera, beste urtebetez Arraten ikusiko dugu elkar ikasturteari hasiera emateko.



# Kittonbolia



# KITTONbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztiei!!!*

- + x - harategia
- ...eta kitto! Euskara Elkarte
- Aibe
- Akara
- Amaña Avia gasolindegia
- Ansa bitxitegia
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azitain-Avia gasolindegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- BBVA
- Benicoba
- Blanca Ioradenda
- Burbujas y mas
- Capi
- Closet
- Coca Cola

- Dandara
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- Divina Valentina
- e&m argazkidenda
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Motor-Seat
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala-Kultura



- El Cantón de la Avenida



- El Corte Inglés



- Emankor




- Eroski Eibar hipermerkatua
- Errebal Kirolak
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Ganbaran
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak

## Millaka opari eibartarron



# *ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danorí!*

- Guillermo arraindegia
- Gurbil
- Hechizos
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki harategia
- Iratxe belardenda
- Irritsa



- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kantoï gasolindegia
- Kerala

- Ketesa
- Kinkila
- Kokein
- Kontent
- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lola's
- Lide
- Luis del Rey
- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-Idoia spa
- Más que wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Natural
- Neure
- Nice Nice
- Oberena harategia
- Orbea
- Oroz Exclusivas S.L.

**OROZ  
EXCLUSIVAS  
S.L.**

- Otegui harategia
- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publi-resa
- Salaberria bitxitegia
- San Andres gozotegia
- S.D. Eibar
- Su Ta Gar
- Sutondo
- Tribeka
- Twins
- Txioka
- Txutxufletas
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zubi-Gain
- Zurkulu

# Arrateko Amaren Jaixak 2015

## Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18.00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.
- 19.00.-** HERRI-KIROLAK.
- 19.00.-** TRIKI-POTEUA.
- 21.00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Unai Agirre eta Jon Maia. Gaijartzaillia: Jon Mikel Mujika. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkartea.
- 21.00.-** HERRI-AFARIXA.
- 22.30.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Egurra Ta Kitto, Los Chikos del Maiz eta Grises.
- 04.00.-** JOLASAK.



Dantza solte txapelketia Arrate Egunian egingo da, arratsaldeko 17.30xetan hasita.

## Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko ditue Zesteroko iturrixan Jai Batzordiak antolatuta.
- 10.00.-** KITTONBOLIA.
- 10.30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
- 11.00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.
- 12.00.-** PRESUEN eskubidien aldeko ALKARRATARATZIA.
- 12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak ARRATEKO AMAREN DANTZAK aurkeztuko ditue zelaixan.
- 13.30.-** TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXAK.
- 17.00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.
- 17.00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.
- 17.30/20.30.-** Bete zaitetz... baina emozioz! alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) ALKOHOLEMIA KONTROLAK egingo ditte. Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikuaren eta menpekotasunen Zuzendaritza.
- 17.30.-** DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
- 18.30/21.00.-** DANTZALDIXA Egan taldiarekin.





Arrateko Amaren Dantzak ikusgai izango dira Arrate egunian, 12.30etatik aurrera.

## Irailak 13, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilaueen eguna

- 10.30.-** Simón Aldazabal XX. ANTIXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11.00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzariarekin. Ondoren, prozesiñua Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- 12.00.-** PAELLA LEHIAKETIA.
- 14.00.-** Paella lehiaketako irabazlieri **SARIXAK BANATZIA**.
- 14.30.-** JUBILAUENDAKO BAZKARIXA, Kantabria jategian. Basarritar nagusixeri oparixak banatuko dituzte. Trikitilari eta bertsolarixekin.
- 17.30.-** IDI PROBAK.

**ARRATE IZENEKUEN** jaixaren XVIII. URTEURRENA **hillaren 20an** ospatuko da, honako egitarauarekin: Arratera igoeria Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik, mezia, bazkarixa, jolasak eta dantzaldixa.

### Arrate egunaren inguruko mezak

- **ASTELEHENEAN (ARRATE BEZPERAN): 18.00.-** Salbea.
- **MARTITZENEAN (ARRATE EGUNEAN): 09.30etan, 11.00etan** (meza nagusia eta prozesioa), **13.00etan eta 18.00etan.**
- **KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 13):**
- 11.00.-** Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.



### Telefono jakingarriak

- LARRIALDIAK.-** SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222. DYA: 943464622. DYA ambulantiak: 943208480.
- OSASUN ZENTROAK.-** Larrialdiak: 943461111 / 943440633. Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.
- BESTEAK.-** Suhiltzaileak: 112/943202328. Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.
- GARRAIOAK.-** Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

### Autobus zerbitzua

**PREZIOA 2 euro**

- **ARRATE BEZPERAN**, Arratera igotzeko autobusak egongo dira **17.30etan eta 19.00etan** Ego-Gainetik.
- **ARRATE EGUNEAN**, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko **03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan.** Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarriatik irtengo dira **09.00etatik aurrera**, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena **21.30etan** irtengo da Arratetik.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

# Eibar FT: Liderra munduko ligarik onenean

23 jokalarik osatzen dute Eibar FT-ren lehen ekipoa

**G**ure herriko foball taldeak inoiz pentsatuko ez genituzkeen lorpenak dihardu erdiesten eta, horrela, orain dela bi hilabete 2. A mailan zegoen taldea gaur egun Lehen Mailako liderra dugu, modu horretan liga horretako historian postu hori lortzen duen 38. taldea bihurtuz. Elx-ek zorrei aurre egin barik zelaian lortu zuena bulegoetan galdu eta gero (lehen aldiz gertatzen da halakorik), Eibarrek haren toki hartu zuen eta ondo baino hobeto erantzun dio denboraldi hasierari, jakinda gainera zelako arazoak izan dituen taldea osatzeko, zein mailan jokatuko zuen jakiteko denbora behar izan zuen-eta. Baina Mendilibarren taldeak (Garitanok lagatako postua hartu du Zaldibarkoak) Granadan 1-3 irabazi zuen, nagusitasuna erakutsiz, eta ligako bigarren jardunaldian Athletic Superkopako irabazlea gainditu zuen Ipuruan (2-0). Zer gehiago eskatu diezaiokegu taldeari, zeinek espero halakorik? Hala ere, iazkoa ikusita, taldean ahalegintzen dira oinak lurrean ondo itsatsita izaten.

Plantilari dagokionez, eta urterokoari jarraituta, asko aldatu da bera: iaz baino askoz gehiago. Urtero horrela ibiltzea, baina, arazotzat jo dute teknikoek eta, horren harira, urte batzuetarako kontratuak egin dizkie etorri berri diren hainbat jokalariri.

## Jokalarien DORTSALAK

1. Irureta
2. Verdi
3. Pantic
4. Ramis
5. Escalante
6. Eddy Silvestre
7. Capa
8. Inui
9. Sergi Enrich
10. Arruabarrena
11. Hajrovic
13. Riesgo
14. Dani Garcia
15. Mauro Dos Santos
16. Lillo
17. Juncà
18. Borja Bastón
19. A. Luna
20. Keko
21. Saúl Berjón
23. Ekiza
24. Adrián
25. Jaime

## Igo ziren bost jokalarik

Garitanorekin 1. mailara igo ziren bost jokalarik bakarrik jarraitzen dute taldean: Irureta atezaina, Lillo atzelaria, Capa eta Dani erdilariak eta Arruabarrena aurrelaria. Horiei iaztik dauden Jaime atezaina, Ekiza atzelaria eta Saul aurrelaria gehitzen zaizkie. Bestelako 15 jokalariek berriak dira: Riesgo atezaina Osasunatik etorri da; defentsarako, Pantic (Villarreal), Luna (Spezia), Juncà (Girona), Ramis (Levante) eta Mauro (Almeria) etorri dira; zelai erdian jokatzeke, Adrian (Elx), Eddy Silvestre (Granada), Izet Hajro-



*Iraizoz Athletic-eko atezainak ezin du Adrianen errematea geratu.*

vic (Werder Bremen), Escalante (Catania), Keko (Albacete), Verdi (Empoli) eta Inui japoniarra (Eintracht Frankfurt); eta aurrean jokatzeke, Borja Baston (Zaragoza, baina Atco. Madrilek lagata) eta Sergi Enrich (Numantzia). Jokalari horiek egingo die aurre denboraldi berriari.

## Errasti Italiara

Taldean zegoen gure herriko jokalarik bakarra Italiako Spezia taldera joan da denboraldi birako (handik etorri da Luna atzelaria gurera). Jakina, bera ez da izan Eibar FT laga duen bakarra: Garitano entrenatzailea Valladolidera joan da eta berarekin izango da Manu del Moral, Añibarrok foballa laga du eta Lezaman teknikari dihardu, Raul Navas Realean

dago, Abraham Merino Zaragozara bueltatu da eta berarekin jokatzen du Angel aurrelariak, Piovaccari Australiaraino joan da bertako Sydney Wanderers-ean jokatzeke, Borja Fernandezek eta Javi Larak ibilbide berria hasi dute Indian, Didac Vilà Greziara joan da Atenaseko AEK-n jokatzeke eta hara joan da Dani Nieto ere (Skoda Shanti), iaz hemen geldirik egon zen Rafa Paez Alcorconen dago orain eta, azkenik, Eneko Boveda Athletic-ekin etorri zen aurreko domekan Ipurua.

## Atzo Sporting-en aurka

Astekari hau inprentara bidali eta gero jokatuko behar zuen Eibarrek Zamudion Xixongo Sporting-en aurka, arratsaldeko 19.00etan hasita.



**CENTRO OM ZENTROA**

Zezenbide, 1 - beheka ezk. - EIBAR -

**REIKI**



**Felipe Arnaz Escudero**

**REIKI 1. MAILA:  
OSABIDE NATURALEKO USU SISTEMA**

**Irailaren 19an eta 20an** (09.30etik 14.00etara)

Kontakturako: **627 916 746 / 943 208 324** (plaza mugatuak)

## NATUROPATA

- Reiki Maisua
- Osteopatia
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reikin Terapeuta
- Kiromasajea
- Reflexologia
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira:  
I, II eta III Mailak, Magisteritza eta Grial Reiki



## Arku-tiroa praktikatzeko ikasturtea hasi da

Urteroko moduan, Arkulariak-ekoek aukera eskaintzen dute arku-tiroan jarduteko. Urte osorako hasiera eta hobekuntza mailetako ikastaro horietan interesa dutenak [www.arkulariak.com](http://www.arkulariak.com) helbidera jo dezakete edo 94-4261468 eta 639-266340 telefono zenbakietara deitu. Klaseak, ume zein helduentzat, eguaztenetan emango dira Mogel-Isasi Institutuan, 18.30etik 20.30erako ordutegian, eta materialak antolakuntzaren kontura geratzen dira.



## Bihar aurkeztuko da Concepto Egile

Bihar Elgoibarko Olaizaga kiroldegian areto-foballeko Concepto Egile taldeak Errioxako Murillo de Rio Leza taldea hartuko du aurrendenboraldiko lagunarteko partiduan, denboraldi berriari begira taldearen aurkezpen gisa jokatuko den partiduan. Neurketa arratsaldetako 18.00etan hasiko da eta Debabarrenako taldearen aurka jokatuko duen taldea igobe-

rria da. Concepto Egile iazko denboraldiko Asier eta Trevi jokalariekin bakarrik geratu da eta beste guztiak berriak dira (Kiki kenduta, azken hori iaz lagata egon baitzen eta aurten bueltatu da). Hodei Lemos atezaina da azken fitxaketa, 11ko foballetik datorrena nahiz eta urte batzuetan areto-foballean jardun zuen. Taldeko lau garren elgoibartarra da bera.



Hodei Lemos.

## Irailaren 13an jokatuko da Simon Aldazabal Saria

Klub Deportibotik aterata, Orbetik Arrateraino igotzen duen lasterketa horrek 20. edizioa beteko du aurten. Lasterketa goizeko 10.30ean hasiko da eta izena egun berean eman daiteke Deporren (proba hasi baino ordubete lehenago). Proba amaieran hamaiketakoia egingo da eta hainbat gauza zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.



# ARRATEKO AMAREN JAIK 2015

## irailak 7/8/13



antolatzailea: EIBARKO UDALA

laguntzaileak: ANDIRAO ELKARTEA

...ETA KITTO!, BETIKUAK

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

KEZKA DANTZA TALDEA





**Euskal Herriko Gazte Orkestrak, azken hamabi urteetan egindakoari jarraituta, Hezkuntza Esparruan prestatu ditu Bilbon, Hondarribin, Donostian eta Gasteizen eman dituen kontzertuak. Hortik kanpora bosgarren emanaldi bat Hezkuntza Esparruan eskaini zuten, ateak zabalik egindako entsegu orokorra. Uztaileko topaketan 74 musikaririk hartu zuten parte, tartean Andrea Berbois biolin-jotzaile eibartarra.**

**- Nola sartu zinen EHGO-n?**

Otsailean Euskal Herriko musikari gazteei probak egin eta kideak aukeratzen dituzte. Horrela lortu dut azken bi urteetan EHGO-ko kide izatea eta topaketan parte hartzea. Hamabi egun igaro ditugu eta zortzi ia osorik entseguetarako erabili genituen. Ordu asko izaten dira, baina asko ikasten da. Aurtengo kontzertuetan Jesus Guridiren "10 melodías vascas" eta Tchaikovsky-ren "6. sinfonía" ("Patetikoa") jo ditugu eta horiek prestatzen ibili ginen.

**- Zer moduz kontzertuetan?**

Hezkuntza Esparruan motibazio handiarekin igo ginen taulara eta gustora geratu ginen. Bilbo-koa Euskaldunan izan zen eta horren areto handiak apur bat kikildu gintuen. Donostian orkestrako kideen senide asko elkartu ziren publikoan eta oso hunkigarria izan zen... Tokiak, sonoritateak eta bestelako faktoreek kontzertu batetik bestera aldaketa handiak eragiten dituzte.

**- Noiz hasi zinen biolina jotzen?**

Hiruzpalau urterekin, anaia eta biok elkarrekin hasi ginen. Ama piano irakaslea da eta Iru-nera, klaseak txinatar irakas-me-

todoari jarraituta (partitura barik, belarriz ikasten da) ematen zuten irakaslearengana joaten hasi ginen eta lauzpabost urte eman genituen. Hamaika/hamabi urterekin, berriz, biolina ohiko metodologiarekin ikasten hasi ginen. Urteetan klasera joaten ibili eta gero, Batxilergoan biolina albo batera laga nuen, baina orain dela sei edo zazpi urte musikaren bideari jarraitu nahi nio-la ikusi eta horretan nabil, Donostian Musikenen biolin karrerako 3. mailan. Eta karrera amaitzean masterra egin behar izaten da nahi ala ez, bestela jai dago! Horrez gain, Donostiako fakultatean Filosofia ikasi eta horretan lizentziatuta nago.

**- Eta hori gutxi balitz, urteetan ibili zara Eibar foball taldean...**

Hamar bat urtez foballean benetan gustora jokatzen ibili nintzen, baina derrigortuta, pena handiarekin laga behar izan nuen. Biolina ondo joteko gorpuzta, bereziki sorbalda-besok ahalik eta nasaien egon behar dira, baina foballak muskulua gogortzen ditu eta, beraz, ez dago biak elkarrekin egiteko modurik.



Andrea Berbois  
(EHGO-KO KIDEA)

**"Eibarren gustora, motibazio handia izan genuen jotzeko"**

**Ketesa 2010** *bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala*

*altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...*

**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

[www.ke2010.com](http://www.ke2010.com)  
[info@ke2010.com](mailto:info@ke2010.com)



**GATE**  
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA  
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717



## Irakurketa kluberako izen-ematea zabalik

Harixa Emoten euskarazko irakurketa taldean izena emateko epea astelehenean zabaldu zen eta irailaren 11ra arte egongo da horretarako aukera. Hilero elkartzen da taldea Portalean, adostutako liburua irakurri eta egilearekin batera liburuari mamia ateratzeko. Aurten ere, Antxon Narbaizaren laguntza izango dute. Lehenengo saioa urriaren 6an (martitzena) egingo da, 19.00-etatik 20.00etara, eta ordurako irakurri beharreko liburua Koldo Izagirreraren "Dumitru" da. Bestalde, liburua eskuratzeko orduan inork arazorik ez izate-

ko, liburutegiak parte-hartzailerako bakoitzarentzat ale bana lortzeko konpromisoa dauka, baina horretarako aurretik izena eman beharko da, liburutegian zuzenean, telefonoz (943-708437) edo emailaz (liburutegia@eibar.eus). Saioak Udaleko liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen dituzte. Horrez gain, gazte-larrazko irakurketa klubean jarduteko aukera ere badago. Saioak Peru Magdalenak dinamizatuko ditu eta parte hartzen dutenei liburuak irakurtzeko aholku eta jarraibideak emango dizkie. Taldeak hilero



Koldo Izagirreraren "Dumitru" liburua irakurri beharko da urriaren 6rako, Harixa Emoten-eko lehenengo saiorako.

biltzen dira Portalean (urritik maiatzera bitartean) eta ikasurtea urriaren 13an hasiko dute, Muriel Barbery-ren "La ele-

gancia del erizo" nobelarekin. Informazio gehiagorako udalaren webgunera edo liburutegiko blogera jo daiteke.



## ...eta kitto!-ren lehen aleak sarean

Ego Ibarra batzordeak ...eta kitto! udal aldizkari zaharrak digitalizatu eta hila-bete honetan bertan egoibarra.eus webgunean eskuragarri ipiniko ditu, interesa duen edozeinek horiek irakurri eta eskuratzeko aukera izateko. Aldizkariaren lehen aleak (1988tik 1991era bitartekoak) udalak editatu eta kalera-tu zituen eta horiek dira internetera igoko dituztenak. Ego Ibarra-koek azal-

dutakoari jarraituta, "...eta kitto!-ren lehen alea Aurora Bascaran alkate zen garaian kaleratu zen. Fernando Munozguren udal euskara arduraduna zenak 1988an sortu eta 1991eko abendura arte udalak kaleratu zuen aldizkari hura da". 1991ean, ...eta kitto! Euskara Elkartea jaiotzen zenean, aldizkaria elkar-tearen esku laga eta harrezkero eus-keratik ematen du argitara.



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

*Labores de*

*Ainhoa*

*Gurutze-puntuan eta patchwork-en*  
*espezializatua.*



Juan Gisasola, 6

690261090

PATCHILDOR-ekin elkartutako **DENDA BERRIA**



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



Ma del Mar Rodriguez Fernandez eibartarrak txikitatik izan du idazteko zaletasuna. Artearen Historia ikasi zuen Madrilan eta gaur egun Correos-eko bulego bateko zuzendaria da. "La rosa alternativa y su principito" liburua argitaratu du. Sentimenduz beteriko ipuin honetan artea, historia, mitologia, poesia... aurki ditzakegu.

## Ma DEL MAR RODRIGUEZ, idazlea: "Erromantizismoz beteriko istorioa da"

- **Liburua Sevillan bizi den Gracia Padilla Fuentes-ekin batera idatzi duzu. Nola sortu zen iniziatiba hau?**

Blog batean *Principito* lanari buruzko aipamen baten komentarioa egin zuen Graciak. Nik erantzun egin nion eta, ondoren, berak neri. Horrela, denbora luzean jarraitu genuen bata besteari erantzuten. Blog horretan egindako komentarioekin sortu dugu liburua bion artean.

- **Nolakoa da liburua?**

Nik uste dut emakumezkoendako kontakizuna dela, edota "bihotza zabalik" daukan gizonezkoren batendako; emakumeek ikusteko daukagun modua islatzen da. *Principito*-n printzea joan egiten da, larrosa bakarrik utzita. Nik baztertutako larrosak sentitzen duenari buruz hitz egiten dut eta Graciak printzeak sentitzen duenari buruz. Gure liburuko larrosa desberdina da, "alternatiboa", eta baita printzea ere. Gure printzea baldar xamarra da: larrosak asko maite du baina berak kontrakoa uste du. Artea, historia, mitologia, denetarik apurtxo bat dago. Garrantzitsuena sentimenduak dira eta prosa poetikoan idatzita dago. Istorio erromantikoa da eta amaiera irekia da, bakoitzak nahi duenaren arabera.

- **Liburuaren portada oso deigarria da. Zeinek egin du?**

Leire Perez Arrizabalaga gazteak egin du, Maria Eugenia Gamboaren laguntzarekin. Biak eibartarrak dira. Leire oso gaztea da: 17 urte ditu. Oso gauza politak egiten ditu eta oso pozik gaude berak egindako lanarekin. Azala oso alai eta koloretsua da.

- **Noiztik datorkizuna idazteko zaletasuna?**

Betidunik izan dut idazteko grina. Edozer gauzari buruz idatz dezaket. Bi blog desberdin ditut: bata nahiko fantastikoa eta bestea eguneroko bizipenei buruzkoa. Esate baterako, lagunekin egindako bidaiei buruzko kronikak ere egiten ditut.

- **Non eskura daiteke liburua?**

Yraolagoitia liburudendan eros daiteke, 10 euroren truke. E-bookerako ere eros daiteke interneten. Ez daukagu dirurik irabazteko asmorik. Hortik ateratzen duguna lisekin elkarteari emango diogu.



## Gaztelekua eguenetik aurrera zabalik

Udako oporren etenaldia amaituta, Indianokua gaztelekuak ohiko martxari helduko dio eta datorren asteko eguenetik aurrera honako orduetegiari jarraituta zabalduko ditu ateak: martitzenetik eguenera bitartean, 18.00etatik 20.00etara; barixakuetan 16.30etik 21.00etara; zapatuetan 17.00etatik 21.00etara; eta domeka eta jai egunetan, berriz, 17.00etatik 20.30era.

## Gau berezia Birjiñape tabernan

Birjiñape tabernak, Distribuciones Socadiak lagunduta, Topaketa Gaua antolatu du datorren astelehenerako (hilaren 7rako):

21.30ean hasiko den egitarauaren barruan Adrian Benes, Valcuerna ardandegiko enologo eta gerentearen hitzak, afaria eta Trio Basaur taldearen emanaldia elkartu dituzte. Afarirako prestatu duten menua ere berezia eta jatekoari laguntzeko Valcuerna ardandegiko ardoak zerbitzatuko dituzte. Erretserbak 943-821341 telefonoan egin daitezke (48 euro).



## UEUko ikastaroetarako diru-laguntzak

Iazko irailaren 1etik 2015eko uztailaren 31ra bitartean UEUk eskaintako ikastaroak egin dituzten eibartarrek Eibarko Udalak ematen dituen diru-laguntzak eska ditzakete eta horretarako Pegora herritarren zerbitzurako bulegora joan beharko dira eskerra aurkeztera (azken eguna irailaren 30a da). Diru-laguntza deialdian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztenek matrikularen % 50ari dagokion diru-laguntza jasoko dute.



## Udako eskaintza irailean ere


Irailean ere El Corte Ingleseko terraza girotzeko jarduerak eskainiko dituzte: gaur 18.00etan "Indians@Cowboys" umeendako antzezlan taularatuko dute, ingelesez, Kids&Us akademiaren eskutik. Hilaren 12rako, berriz, animazioa eta magia uztartuko dituen ikuskizuna eskainiko dute Animaciones AEIOU-koek; 19rako, 3 eta 16 urte bitartekoentzat playback lehiaketa antolatu dute (parte hartu nahi duenak Liburudenda sailean izena eman beharko du) eta irabazleek erosketak egiteko opari-txartelak (150, 100 eta 75 euroko baliodunak) jasoko dituzte sari moduan; eta iraila agurtu baino lehen, 26an "Little Chef" ingelesezko jarduera egingo da eguerdian eta arratsalderako, berriz, zinea emateko asmoa daukate.



## laburrak

### EUSKALDUNTZE KANPAINAK

Kurtso berriarekin batera euskalduntze-alfabetatze kanpaina bereziak abiatuko ditu Udal Euskaltegiak. Guraso, langabetu, ostalari eta merkatarietzako bereziki pentsatutako euskalduntze-alfabetatze ikastaroen gaineko informazioa ezagutzera emateko bilera egingo dute datorren astean, eguenean, 18.00etan Portaleko areto nagusian.



### SAN ANDRES KARTELA

Udalaren Kultura Batzordeak 2015eko Sanandresetarako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du. 'Sanandresak Eibarren' kartel lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna urriaren 13a (19.00etan) izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, eibar.eus webgunean begiratu.

## Udalaren webgunea berritu dute

Udako oporren aurretik, uztailean aurkeztu zuten udaletxean Eibarko Udalaren webgune berriua. Azal nagusian hobekuntza nabarmenak egitearekin batera, www.eibar.eus atariari atal



berri bi gehitu dizkiote: Gardentasunaren pegora edo ataria eta Kulturako mikrositea. Lehenengoan udalaren jarduerari buruzko informazio guztia, "egiazkoa eta erabilgarria" herritarrei eskaini nahi zaie, "modu erraz batean behar duten informazioa eskuratzeko moduan". Eta Kulturako mikrositeak, bestalde, udaleko kultura eragile guztiak gune bakar batean biltzeko asmoz abiarazi dute. Gardentasunaren ataria udal webguneko menu nagusian dago txertatuta (<http://www.eibar.eus/eu/gardentasuna>) eta Gipuzkoa Irekia plataformaren barruan ere badago (<http://www.gipuzkoairekia.eus/eu/web/eibar/hasiera>).



**EIBAR**



**Beilatokia**  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**



**Beilatokia:**  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**



**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**

Jardiñeta, 3  
20600 Eibar

**2015/2016**

**MATRIKULA OFIZIALA**

**Irailaren 1etik 18ra**

ALEMANA, EUSKARA,  
FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:  
**[www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net)**

ARGIBIDE GEHIAGO: **[www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net)**  
943.20.06.48

## telefono jakingarrak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22

Mendaro osp. ....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## farmaziak

- ✓ **barixakua 4**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 5**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 6**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 7**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 8**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztena 9**  
EGUNEZ **Castañó** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguenen 10**  
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 11**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

**GAUEZ BETI**  
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

## hildakoak

- Lourdes Otaño Elorza. 85 urte. 2015-VII-1.
- Pedro Etxarte Zubizarreta. 84 urte. 2015-VII-2.
- Ana Hernandez Txurruka. 90 urte. 2015-VII-5.
- Antonia Alvarez Bereziartua. 93 urte. 2015-VII-8.
- Nieves Barrenetxea Aranburu. 98 urte. 2015-VII-8.
- Juan Jose Izaga Martinez. 48 urte. 2015-VII-8.
- Visitacion Pujante Canovas. 100 urte. 2015-VII-10.
- Mercedes Arrizabalaga M. Albeniz. 88 urte. 2015-VII-11.
- Arantza Arriola Tolosa. 89 urte. 2015-VII-13.
- Domingo Ricardo Pardo Ranero. 60 urte. 2015-VII-14.
- Angela Ugarteburu Iñarra. 91 urte. 2015-VII-14.
- Juan Lorente Marquez. 93 urte. 2015-VII-15.
- Jose Marquez Velasco. 79 urte. 2015-VII-15.
- Antonio Alguacil Ramirez Ocariz. 90 urte. 2015-VII-18.
- Miguel Angel Larrarte Arrizabalaga. 82 urte. 2015-VII-18.
- Pascual Garcia-Pascual Perez. 91 urte. 2015-VII-18.
- Concepcion Astigarraga Azpiazu. 85 urte. 2015-VII-18.
- Eva Cabria Ramirez. 91 urte. 2015-VII-19.
- Carmen Bastarrika Barrenetxea. 97 urte. 2015-VII-20.
- Piedad Miguel Labeaga. 88 urte. 2015-VII-21.
- Nicasia Gomez Torres. 89 urte. 2015-VII-22.
- Carmen Bendaña Dominguez. 82 urte. 2015-VII-23.
- Javier Entrena Aginaga. 77 urte. 2015-VII-23.
- Emilia Garcia Montaño. 59 urte. 2015-VII-24.
- Juan Jose Urrutia Eizagirre. 70 urte. 2015-VII-24.
- Margari Otxandiano Uribe. 86 urte. 2015-VII-28.
- Jose Antonio Roige Beitia. 76 urte. 2015-VII-31.
- Luis Borja Zabala. 90 urte. 2015-VII-31.
- Irene Fernandez de Pinedo Moral. 72 urte. 2015-VII-31.
- Encarna Ruiz Alonso. 88 urte. 2015-VIII-2.
- Jose Antonio Atxa Agirre. 72 urte. 2015-VIII-2.
- Agustina Gallastegi Txurruka. 89 urte. 2015-VIII-3.
- Alex Melero Latorre. 52 urte. 2015-VIII-5.
- Felicitas Zubiaurre Elustondo. 99 urte. 2015-VIII-5.
- Marciano Gutierrez Gutierrez. 75 urte. 2015-VIII-8.
- Sabina Horrillo Davila. 89 urte. 2015-VIII-9.
- Catalina Baskaran Aldazabal. 98 urte. 2015-VIII-10.
- Leoncia Artamendi Arrillaga. 86 urte. 2015-VIII-10.
- Jose Luis Bengoa Gallastegi. 86 urte. 2015-VIII-11.
- Felix Azpitarte Milikua. 77 urte. 2015-VIII-13.
- J. Angel Gerrickaetxeberria Urzelai. 65 urte. 2015-VIII-16.
- Espe Ugarte Zulaika. 54 urte. 2015-VIII-16.
- Arrate Bengoa Gorosabel. 56 urte. 2015-VIII-20.
- Justo Calvo Piñeiro. 83 urte. 2015-VIII-23.
- Patxi Uribarri Otaduy. 89 urte. 2015-VIII-23.
- Asuncion Iglesias Daquinta. 97 urte. 2015-VIII-25.
- Jose Miguel Zinkunegi Ibarbia. 85 urte. 2015-VIII-26.
- Magdalena Dieguez Nuñez. 83 urte. 2015-VIII-26.
- Felisa Albarran Valverde. 97 urte. 2015-VIII-26.
- Rosa Erkizia Iriondo. 88 urte. 2015-VIII-27.
- Juan Carlos Placencia Mugarza. 81 urte. 2015-VIII-29.
- Julio Larrea Igartua. 76 urte. 2015-VIII-29.

## jaiotakoak

- Inas Bousbaa Noam. 2015-VII-2.
- Akemi Maridueña Pedrosa. 2015-VII-2.
- Youssef Doudouh. 2015-VII-3.
- Yasmin Deza El Hafidi. 2015-VII-4.
- Luken Lejardi Hernandez. 2015-VII-8.
- Noa Amesti Moran. 2015-VII-9.
- Rayan Ahdaddou. 2015-VII-14.
- Paul Muniozgueren Zangitu. 2015-VII-14.
- Amagoia Ezepeleta Rodriguez. 2015-VII-15.
- Eneko Galarraga Osa. 2015-VII-15.
- Adam Atmani Kermaoui. 2015-VII-15.
- Xue Talan Linares. 2015-VII-15.
- Jare Ezenarro Sierra. 2015-VII-15.
- Laia Santamaria Perez. 2015-VII-17.
- Noa Gutierrez Trigo. 2015-VII-18.
- Ariane Valenciaga Vallecillo. 2015-VII-19.
- Alaitz Blasco Azpeitia. 2015-VII-20.
- Danel Blasco Azpeitia. 2015-VII-20.
- Maddi Bustinduy Muniozgueren. 2015-VII-25.
- Manex Kerejeta Fernandez. 2015-VII-26.
- Koldo Peña Eguren. 2015-VII-27.
- Eider Aranguren Basurto. 2015-VII-28.
- Oihan Larrañaga Pagei. 2015-VII-28.
- Laia Dominguez Santos. 2015-VII-30.
- Navelli Dominguez Santos. 2015-VII-30.
- Saioa Cid Atxa. 2015-VIII-7.
- Nour Jrou. 2015-VIII-11.
- Nadir Ghrif. 2015-VIII-12.
- Yahya Belaziz. 2015-VIII-13.
- Suhar Rementeria Amiama. 2015-VIII-15.
- Laia Etxebarria Ormaetxea. 2015-VIII-21.
- Eneko Esnaola Galarraga. 2015-VIII-25.
- Alazne Garcia Rodriguez. 2015-VIII-27.

## S U D O K U A

1	7		5				
6		2		8			5
		4		2			7
2				6		1	
3	1					6	9
	8		7				2
9			8			6	
7			3			9	8
			6			7	3

2	4	6	1	8	7	5	9	3
8	5	7	2	3	9	4	1	6
9	1	3	4	6	5	7	8	2
4	7	2	6	5	8	9	3	1
6	3	5	9	7	1	2	4	8
1	8	9	3	2	4	6	5	7
7	2	4	5	1	3	8	6	9
3	9	8	7	4	6	1	2	5
5	6	1	8	9	2	3	7	4

AURREKOEN EMAITZA



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, PAUL, abuztuaren 25ian bost urte egin zenduazena-eta. Laztan potolua famelixako guztien partetik.



Zorionak, MALEN, uztaillaren 23an zortzi urte bete zenduazena-eta. Muxu handi bat etxekuen eta, batez be, Noraren partez.



Zorionak, NAIARA, abuztuaren 16xan 11 urte bete zenduazena-eta. Muxu pillua danon eta, batez be, ahizta Karenen partez.



Zorionak, GARAZI, gure printzesak abuztuaren 17xan zazpi urte bete zittuan-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, uztaillaren 22xan lau urte egin zenduazena-eta. Patxo handi bat famelixaren eta, batez be, Amaiaeren partez.



Zorionak, MADDI, uztaillaren 31n urtetxua egin zenduan-eta. Patxo handi bat famelixa guztiaeren partez.



Zorionak, LUCIA, abuztuaren 17xan 9 urte bete zenduazena-eta. Muxu handi bat etxeko danon partez.



Zorionak, EKAIN, zortzi urte beteko dozuz-eta Arrate bezperan. Muxu handi bat famelixakuen partez.



Zorionak, IRATI, atzo gure printzesak sei urte egin zittuan-eta. Famelixako guztien partez.



Zorionak, EUKENE, abuztuaren 19xan sei urte bete zenduazena-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, MIXEL (uztaillaren 27xan urtebete) eta MAREN (abuztuaren 29xan lau urte) urtiak bete zenduzena-eta. Muxu handi bat, printzesak, tio Iñigo eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, UXUE, etzi sei urte beteko dozuz-eta. Patxo potolua zure famelixaren eta, batez be, Xabierren partez.



Zorionak, JUNE, uztaillaren 24an hiru urte bete zenduazena-eta. Patxuak Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, NAIA, zure 5. urtebetetzian. Laztan potolua Eibarko famelixa guztiaeren partez.



Zorionak, KEPA, abuztuaren 19xan urtetxua bete zenduan-eta. Famelixaren eta, batez be, Uxue eta Xabierren partez.



Ongi etorri, ALAZNE, abuztuaren 27tik gure artian zagozelako. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, NOAH, hillaren 8xan zortzi urte beteko dozuz-eta. Laztan bat famelixaren eta, batez be, Maren eta Nahiaren partez.



Zorionak, SUSANA (uztaillaren 23an) eta MANEX (abuztuaren 8xan urte bi), urtiak egin dozuez-eta. Laztan handi bat aitatxoren eta Albaren partez.



Ongi etorri, SAIOA!, abuztuaren 7xan gure artera etorri ziñalako. Etxekuen eta, batez be, MAIALENeN partez.



Zorionak, OIER eta JONE, abuztuaren urtiak bete zenduzena-eta. Danon partez.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldaria berria, 5 horma-armairu eta trasteroa. Ilogailua. Argitsua. 130 m. erabilgarri. Erdikaldean. Tel. 626-203838 eta 699-495249

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruan. 500 eurotik behera. Tel. 632-337083.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelakoa, jantzita eta berogailuarekin. 450 euro ordaintzeko prest. Tel. 603-136727.  
– Mutil arduratsuak gela edo pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 686-257718.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Bi Yamaha Virago motor salgai. 1.100 cc. Biak 2.500 eurotan. Tel. 615-729400. Igor.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garajea salgai Egiurentarren kalean (20. zkia.) 3. solairuan. 15 m<sup>2</sup>. Prezio onean. Tel. 678-426136.

### 3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta tanatorioetan makilatzeke. Tel. 647-898016.  
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 662-252150.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da gaeuz Mendaroko ospitalean edota etxeetan gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.  
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-124942.  
– Neska eskaintzen da gaeuz lan egiteko. Tel. 631-139915.  
– Emakumea eskaintzen da gaeuz lan egiteko. Tel. 602-149777.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-879419.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta orduka garbiketara lanak egiteko. Tel. 652-869167.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-564679.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 655-677035.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta pegorak garbitzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 633-357538.  
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 626-722291.  
– Emakumea eskaintzen da orduka etxekolana egiteko. Tel. 632-337085.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da edozein garbiketara motarako. Esperientzia. Tel. 639-423493.  
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-891885.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 622-225551.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-778839.  
– Gizona eskaintzen da iturgin zein elektrizitate lanetan jarduteko. Tel. 632-695273.  
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.  
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez (10.00ak arte) umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-980628. Irati.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-966358.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 653-156403.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 632-879862.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 674-342769.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-426847.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaeuz ere. Tel. 631-417995.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko. Tel. 658-458061.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 655-231059.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gaeuz ere. Tel. 679-910991.

## 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da astegunetan eta arratsaldeko neskato bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 650-981443.  
– Emakume euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko. Tel. 637-942140.  
– Kamarera/o behar da Eibarko pub batean asteburuetan lan egiteko. tre@euskalnet.net  
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna bateko barra eta jantokirako. Ezinbestekoa eskarmentua izatea. Tel. 638-480460.  
– Emakume (25-40) euskalduna behar da mutiko bat zaintzeko. Tel. 649-781942.  
– Emakume euskalduna behar da baserri batean etxeko lanak egiteko. Egun osorako. Tel. 688-649596.  
– Langile euskalduna behar da Eibarko taberna baterako. Tel. 639-792203.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberrretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.  
– Euskarazko klase partikularrak ematen ditut maila guztietan (EGA azterketa, perfilak etabar prestatzeko). Baita LH eta DBHko gai guztiak ere. Esperientzia. Tel. 645-005943.  
– Euskara ikasi nahi duzu? Azterketetarako prestaketa: EGA, Haberen mailak, IVAP... Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– LG Direct Drive erroga garbigailua salgai. 7 kiloko kargakoa. 15 hilabete ditu. 370 euro. Tel. 628-662998.  
– DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 617-467779.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Uztailean "nifra" txoriak ihes egin zidan. Katakua txikia da, krestarekin, grisa eta aurpegian biribil laranja dauka. Hitz egin eta txistua egiten du. Tel. 619-867218.



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

• **Ortufik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena**

**Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude**

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

## Irailaren 1etik 25era MARIKULA ZABALIK

16 urtetik  
gorakoentzat



- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak  
(maila guztiak)

1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
A1	A2	B1	C1	C2

- Azterketa prestakuntza
- Autoikaskuntza: **BOGA programa**  
(Tutoretzak eta mintzasaiolak)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)

ordutegi zabala

TARIFA BEREZIAK:

guraso, merkatari, jubilatue eta enplegatuentzat

AURTEN LANGABETUEK ETA IKASLEEK ERE

%50EKO DESKONTUA

*Eibarko Udal Euskaltegia*

Bista Eder, 10 -PORTALEA-

[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)

Tfnoa: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskera



**CURSO 15/16 IKASTURTEA**



## ATE IREKIEK JARDUNALDIA

Larunbata, irailak 12

Ingelesa Urte 1-etik Aurrera!

Kids&Us.  
school of english

YOUR TRIBE SPEAKS ENGLISH

## KIDS&amp;US-EK BERE HIRUGARREN ZENTROA IREKI DU, KIDS&amp;US EIBAR



- \* **Miribilla eta Zarautz ondoren Kids&Us Eibarren ere egongo da, Ego-Gain kalean, 8 zenbakian.**
- \* **Kids&Us-ek hizkuntzan guztiz murgiltzea proposatzen du, haurrek oso gaztetan ikasteko duten gaitasun handia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin.**
- \* **Enpresak mundu osoan 85.000 ikasleko kopurua gainditzea aurreikusten dugu.**

Ingelesa geure ama hizkuntza ikasten dugun modu berean ikastea. Hori da, orain dela 12 urte, Natalia Perarnau filologoak ingelesa ikasteko sortu zuen metodologia berritzailearen abiapuntua. Kids&Us-ekin urtebetetik aurrerako haurrak bigarren hizkuntza bat ikasten has daitezke, ikaskuntza sistema tradizionalaren guztiz desberdina den metodo baten bidez.

2015/2016 ikasturtera begira, Eibarrek Kids&Us zentro bat izango du. Ego-Gain 8 helbidean egongo da eta datorren irailaren 12an ate irekien jardunaldia egingo du lau saio desberdinetan: 11:00etatik 12:00etara, 12:30etik 13:30era, 17:00etatik 18:00etara eta 18:30etik 19:30era. Goizeko bi saioak beteta daude, baina badago tokia beste bi saioetarako. Ate irekien jardunaldira joan nahi duten guztiek posta elektronikoko bat bidal dezakete eibar@kidsandus.es helbidera, izena, abizenak, seme-alaben adinak, aukeratu duten saioa eta bertaratuko diren nagusien kopurua zehaztuz.

Gurasoei aurkezpen bat eskainiko zaie zentroan eta, aldi berean, gatzetxoentzat sorpresaz betetako jarduerak antolatuko dira.

## INGELESA URTEBETETIK AUERRERA

Ama hizkuntzaren barneratze-prozesua haurra hizkuntza hori entzuten hasten denean hasten bada, zergatik itxaron behar dugu bigarren edo hirugarren hizkuntza bat entzuten hasteko, gure helburua haurrak gaitasun on bat garatzea baldin bada? Kids&Us-ek ama hizkuntza barneratzeko prozesu naturalean oinarritutako metodologia erabiltzen du, ordena natural eta espontaneo baten ematen den prozesu hutsezina. Gure ama hizkuntza barneratzean, entzunez hasten gara, ondoren entzuten duguna ulertzen dugu, guzti hori hitzez adieraziz eta, azkenik, urte batzuk igarotzen direnean, hizkuntza hori irakurtzeko eta idazteko gai gara.

Kids&Us metodoarekin, urtebete betetzean hizkuntza batekin kontaktuan jartzen dira haurrak, modu globalean eta murriztapenik gabe, baina beren adinarekin bat datozen egoera eta testuinguruetan.

Jokoen, ipuinen, abestien edo dantzen bidez hizkuntzan guztiz murgiltzen dira haurrak, ikasteko duten gaitasun handia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin.

Kids&Us-eko ikasturteen eskaintza gurasoei joaten diren urtebeteko hurretatik hasita, 18 urteraino luzatzen da, eta ikasleak Proficiency maila lortzeko gai izango dira, Cambridge-ko Unibertsitateak aintzatesten duen maila altuena. Bartzelonako Unibertsitateak 2012. urtean egindako ikerketa batek bermatzen ditu ikaskuntza sistemaren honen onurak, metodo tradizionalarekin alderatuz. Ikerketaren arabera Kids&Us-ekin ingelesa ikasi duten haurrek hiztegi, gramatika, ahoskatze, ahozko eta idatzizko ulermen eta ahozko adierazpen hobeak dituzte.

## MATERIAL DIDAKTIKO PROPIOA

Eskolak minutura planifikatuta daude eta Kids&Us-eko departamentu pedagogikoak garatutako material pedagogiko eskusiboen laguntzarekin indartzen dira. Gainera, maila aurreratuetan, azterketa ofizialetan agertzen diren moduko ariketak egin ahal izango dituzte ikasleek, azterketa ofizialetara aurkeztu ahal izateko.

## AMA EKINTZAILE BATEN ESPERIENTZIA

Natália Perarnauk bere hizkuntza akademia propioa zuen eta, ama izan eta gero, alabari ingelesa irakatsi nahi izan zionean sortu zuen Kids&Us. Egutero, tarte batez, alabari ingelesez hitz egitea proposatu zion bere buruari, eta handik gutxira ohartu zen alabak ulertzen zuela eta ingelesezko esaldiekin komunikatzen saiatzen zela. Horrela joan zen metodoa garatzen, eta ikasleekin lantzen hasi zen. Lortutako emaitza onek sustatu dute metodoaren hedapena.

## KIDS&amp;US-I BURUZKO ZENBAIT DATU

- \* **Sortze-urtea:** 2003
- \* **Zentro-kopurua 2015-2016:** 266
- \* **Ikasle-kopurua 2015-2016:** 85.000 baino gehiago
- \* **8 herrialde desberdinetan dago:** Espainia, Andorra, Frantzia, Italia, Belgika, Portugal, Txekiar Errepublikak eta Mexiko

**Kids&Us Miribilla**  
Angel Ortiz Alfau kalea  
48003 Bilbo-Miribilla  
T. 688 648 809

**Kids&Us Zarautz**  
Salbide 1, C lokala  
20800 Zarautz  
T.638 527 949

**Kids&Us Eibar**  
Ego-Gain kalea, 8  
20600 Eibar  
T. 688 607 638

**Kids&Us**  
school of english